

MATRIKULARAKO LAGUNTZAK UPV/EHUko "IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK" MASTERRERAKO, 2025/2026 IKASTURTEA

(Dirulaguntza hauek publikoak dira, eta ematen dira feminismo eta genero ikasketei buruzko graduondokoak eta berdintasunarekin zerikusia duten unibertsitate jarduerak egiteko 2025an. Deialdia 2025eko apirilaren 10eko Erabakiaren bidez egin zen, babes hartuta otsailaren 23ko TAS/535/2007 Agindua, Emakumeen Institutuaren dirulaguntza eta beken oinarriak onartzekoa, martxoaren 10eko BOEn argitaratua).

1.oinarria.- Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua da dirulaguntzak ematea UPV/EHUko "Ikasketa Feministak eta Generokoak" masterreko matrikula osoa edo haren zati bat ordaintzeko 2025/2026 ikasturtean matrikulatutako ikasleei.

Deialdia ez da lehiaketa bidezkoa eta bekak dirulaguntza modalitatekoak dira.

2.oinarria.- Aurrekontua.

Laguntza hauek emateko Emakumeen Institutuak emandako 8.000 €-ko dirulaguntza publiko bat dago, "Ikasketa Feministak eta Generokoak" masterra egiteko eta berdintasunarekin zerikusia duten unibertsitate jarduerak burutzeko.

3.oinarria.- Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

Laguntza eskuratzeko, honako baldintza hauek (guztiak) bete behar dira eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

- UPV/EHUko "Ikasketa Feministak eta Generokoak" masterreko gutxienez 60 kreditutan matrikulatuta egotea. Matrikularen zenbatekoak ordainduta egon behar du eskabidea aurkezteko epea amaitzen denerako
- Eskaria aurkeztea, dagokion dokumentazioarekin batera.
- Ez edukitzea beste beka edo laguntzarik, erakunde publiko edo pribatuenik, masterra egiteko edo hari lotutako gastuak ordaintzeko.
- Ezin izango dute bekarik jaso Dirulaguntzen Lege Orokorrean aipatutako debekuren baten pean daudenean (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, 13. art.).

4.oinarria.- Laguntzaren zenbatekoa.

Deialdi osorako dagoen zenbatekoa (8.000 €) modu proportzionalen banatuko da deialdiko baldintzak betetzen dituzten eskari guztien artean, eta onuradun bakoitzak horren arabera dagokiona jasoko du.

Ikasle bakoitzak laguntza bat baino ezin izango du jaso, eta zenbatekoa, gehienez, masterrean ordaindutako matrikularena izango da.

5.oinarria.-Eskariak aurkezteko xehetasunak.

5.1.- Epea.

Eskariak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izango da, deialdi hau web orri honetan argitaratzen denetik hasita:

<https://www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak/unibertsitate-masterrak/aurretiko-izen-ematea-eta-matrikula/bekak-eta-laguntzak>

5.2.- Eskariak aurkezteko lekua.

Eskariak I. eranskineko eredia erabiliz aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta eskatutako dokumentazioarekin. Posta elektronikoz bidali beharko dira Deialdi eta Laguntzen Atalera: convocatoriasyayudas@ehu.eus

5.3.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskaria (I. eranskina).
2. Eskatzailearen NANaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.

6. oinarria.- Epaimahaia.

Epaimahaiak osakide hauek izango ditu:

-Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordea edo hark bere ordeiz izendatzen duena.

-Unibertsitate masterraren arduraduna.

-Master eta Doktorego Atalaren arduraduna.

7. oinarria.- Erabakia.

7.1. Behin-behineko erabakia.

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzan aztertuko dira. Horren ostean, onartutako eta baztertutako eskarien behin-behineko zerrenda argitaratuko da 5.1 aipatutako web orrian.

Interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute hamar egun balioduneko epean, behin-behineko erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

7.2. Behin betiko erabakia.

Epe hori igarota, eta alegazioak behin aztertuta, halakorik balego, esleitutako laguntzen behin betiko erabakia argitaratuko da lehen aipatutako web orrian.

Laguntza esleitu zaien pertsonak baldintzen onarpena sinatu behako dute (II. eranskina) hamar egun balioduneko epean, behin betiko erabakia argitaratzen denetik hasita, eta Deialdi eta Laguntzen Atalera bidali beharko dute posta elektronikoz: convocatoriasyayudas@ehu.eus.

Tramite hori egiten ez badute, unibertsitateak ulertuko du laguntzari uko egin diotela.

7.3.- Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak.

Behin betiko erabakiak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka honako errekurtsio hauek jarri ahal izango dira, baina inola ere ez aldi berean:

1.- Aukerako berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango zaio erabakia eman duen organoari, hilabeteko epearen barruan, erabakia deialdiko web orrian argitaratu eta biharamunetik hasita, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluari jarraituz.

Errekurtsio hori jarritz gero, hilabeteko epean hari buruzko erabaki adierazirik ez badago, isiltasun negatiboaz ezetsi dela ulertu beharko da. Hori gertatuz gero, auzibidera jotzeko aukera zabalduko da, hurrengo puntuaz azaltzen denez.

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da administrazio auzietako Bilboko epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

8. oinarria.- Jakinarazpenak egiteko eta informazioa argitaratzeko bideak.

Deialdiaren gaineko dokumentazio eta informazio guztia web orri honetan argitaratuko da:

<https://www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak/unibertsitate-masterrak/aurretiko-izen-ematea-eta-matrikula/bekak-eta-laguntzak>

Horko argitalpenak interesdunentzako jakinarazpenak izango dira.

Eskatzaileek helbide elektroniko bat jarri beharko dute eskari orrian, eta jakinarazpen indibidualik egin behar bada, horra idatziko zaie.


9. oinarria.- Ezeztapena.

Beherago zerrendatzen diren kasuetakoren bat gertatzen bada, baliteke unibertsitateak esleipena berraztertzea aurkakotasuneko espediente baten bidez, eta, horren ondorioz, gerta liteke esleipena ezeztatzea eta onuradunak bidegabeki jasotako dirua itzuli behar izatea, legeak horretarako ezarritako epean. Honako hauek izan daitezke dirulaguntza kentzeko arrazoi:

- a) Eskaria egitean datuak edo dokumentuak faltsutu edo ezkutatu izana.
- b) Dirulaguntza honekin bateraezina den beste dirulaguntzaren bat jasotzea, 3. oinarriaren arabera.
- c) Dirulaguntza jaso ondoren, onuradunak matrikula osoa edo parte bat baliogabetzea 2025/2026 ikasturtean.

10. artikulua.- Araubide juridikoa

Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztirako honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen Lege Orokorra (38/2013 Legea, azaroaren 17koa) eta haren erregelamendua onartzen duen errege dekretua (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa); azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko VI. idazpurua, dirulaguntzei buruzkoa; eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).



Ainhua Berasaluze Correa
Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordea
Vicerrectora de Posgrado y Aprendizaje Permanente